



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 5ean

21 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasibo-
ei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko
epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kon-
tseilua sortzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, pertsona
zaharrak hartzei buruzkoa (5. or.).
- Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko
20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru Dekretu hori 621/1999 Foru
Dekretuak aldatu zuen. Zuzenketak aurkezteko epea (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroa-
ko Gobernua premiatzen da minosbaliotasuna duten pertsonak kontratatzei buruzko arauak bete ditzan
(11. or.).
- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren
bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeari buruzko lege indar-
dunak bete ditzan (13. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroa-
ko Gobernua premiatzen da ikastetxe publikoen hezkuntza-eskaintza hobetzeko plan bat egin dezan, eta
José Vila ikastetxe publikoa itxi izana kritikatzeko (14. or.).

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuari buruzko Foru Legeak zenbait oinarritzko alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan (15. or.).
- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan (16. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uko egin diezaion José Vilá ikastetxe publikoa ixteari (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Berezian proposamen bezala izapidatzea (19. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Iruñeko erietxeen eremuan aparkatze-ko arazoei buruzkoa (20. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, etxebizitzak zaharbertzearen arloko arauak aldatzeari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Lodosan hondakin toxikoetarako biltontzi bat jartzeari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, toki azpiegituren hiru urteko plane-ko obren diru-kopurua handitzeari buruzkoa (22. or.).
- Galdera, Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruzkoa. Ahoz erantzuteko galdera atzera bidaltzea (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganbarako 2001erako plantilla organikoa eta 2000ko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda (24. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile-teknikariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeke zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako. Eskabideak aurkezteko epea (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko martxoaren 30eko eguerdiko 12:00etan** bukatuko dela xedatzea. Foru lege proiektu hori 2000ko urriaren 11ko 81 zenbakiko

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea **2001eko martxoaren 9ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kon-

tseilua sortzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko martxoaren 9ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamenaren biderapena onestea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena**ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Parlamentuak pertsona zaharrei laguntzeari buruzko plangintza-tresna gisa onetsi zuen 1997-2000 eperako Nafarroako Plan Gerontologikoa, eta helburu zuen Nafarroako Foru Komunitatean pertsona zaharrentzako laguntza-aren esparruan aztertutako edo aplikatzen hasitako neurri guztiak koordinatzea.

Plan horrek biltzen zituen 1993an Kontuen Ganbarak eman zuen Hirugarren Adinerako Programaren Fiskalizazio Txostenean egindako gomendioak, eta bizikidetasun-modu ezberdinei nahiz haien babes juridiko eta ekonomikoari buruzko aipamenak egiten zituen.

Nafarroako gaur egungo gizarteak elkarri laguntzeko harremanak barnean hartzen dituzten bizikidetasun-egoerak agertzen ditu; bereziki, pertsona zaharrei dagokienez. Horrela, haiek dauzkaten zailtasunak gainditzea bilatzen da.

Pertsona bati familian hartuz laguntzeko modu hori, ukiturikoei berek pentsio edo “apopilo” moduko egoeratzat hartzen dute. Horrelakoetan abusuak edo babes gabeziak gerta daitezke; hori dela-eta, normalki kanpoko bitartekotzarik gabe alderdiek iritsitako akordio baten bidez hasten den harreman hori arautzea beharrezkoa da.

Sistema horretara jende askok jotzen ez duen arren, herri eta baserri ingurunean bizi diren pertsona zahar batzuentzat bizi-kalitate ona eskaintzen dien aukera bat izan daiteke.

Hori guztia dela-eta, ikusi da egoki dela bizikidetasun-egoerak arautzea pertsona batzuk etxebizitza berean bizi direnean, familia bat osatu gabe, alboko lineatik urruneko ahaide izanik edo, soilik, adiskidetasun edo elkartasunagatik baturik, eta ahulenari laguntzeko eta bizikidetasuna iraunkorra izateko asmoa dutenean.

Zehazki, pertsona batek edo bikote batek beste pertsona bati edo bikote zahar bati, pertsona batzuen eta euren ondorengoen artean sortzen diren harremanen antzeko baldintzetan, etxean hartzeko eginiko eskaintzaren ondorioz sortzen den bizikidetasuna arautzen da. Bizitzaren luzapena eta jaiotza-tasaren beherakada direla-eta, biztanleria zahartzen doa pixkanaka, eta bizikidetasun-mota hori egituratuz arautuko duen lege babes-emaile bat soluzioa izan daiteke bizikidetasun-mota horren aldeko hautua egiten duten pertsona zaharren ongizate orokorrerako, haien zailtasun ekonomiko eta sozialak konpondu ditzake eta pertsona horiek instituzio geriatricoetan sartzea ez beste aukera bat ekar dezake.

Foru Lege honek bi kapitulu ditu ardatz: lehen zatia pertsona zaharrak hartzeko hitzarmena eratzeari buruzkoa da; bigarrena pertsona zaharra hartzearen amaiera eta amaiera horren ondorioak

aztertzen ditu. Xedapen gehigarri bat eta amaiera-ko xedapen bat ere baditu.

I. kapitulua **Pertsona helduen harrera**

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru Lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan egiten diren familiako harrerei, pertsona zaharren eta familien, bikoteen edo bakarrik bizi diren pertsonen arteko-
ei.

2. artikulua. Kontzeptua.

Familiako harrera da zahar-etxe batean bizi nahi ez duten edo bizitzerik ez duten eta famili harreman eskasak dauzkaten pertsona zaharrei familiako zainketa arrunt eta pertsonalizatuak ematea; horren bidez, haien bizi kalitatea hobetzen da eta modua ematen zaie bizitza sasi independente bat izateko ohiko ingurune baten baitan. Halakoetan, ondoko irizpideei jarraituko zaie:

1. Pertsona hartzailleak eta hartutako pertsonak ohiko etxebizitza berean biziko dira, pertsona hartzailleena nahiz hartutako pertsonena izan, lehenbizikoek bigarrenak zaintzeko, jaten emateko, laguntza emateko, haien ongizate orokorraren alde egiteko eta gaixorik daudenean zaintzeko.

2. Pertsona hartzailleek eta hartutako pertsonak laguntza emanen diote elkarri, eta etxeko gastuak eta lanak hitzartutako moduan partekatuko dituzte, betiere alderdi bakoitzaren aukera errealean arabera.

3. Harrera zerbitzuaren kontraprestazioa ondusun higikorak edo ondasun higiezinak lagatuz edo dirutan egin daiteke.

4. Pertsona hartzailleek tutoretza eratzea sustatu beharko dute, baldin eta hartutako pertsonak haren menpe jartzeko egoeran daudenean.

5. Harrera egiten den etxebizitzak behar dituen bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak beteko ditu, azpiegituretan nola zerbitzuetan.

3. artikulua. Modalitateak.

Familiako harrera ondoko modutan egin ahal izanen da:

1. Behin-behineko harrera. Aldi baterako izanen da, pertsonak hartzeko ahaide zuzenen atsedean aldietan edo gaixorik daudenean, edo zahar-etxe batean sartu aurreko egokitzeko modu gisa.

2. Behin betiko harrera. Bizi den komunitatean laguntzarik ez egoteak edo pertsona zaharren beste egoera batzuek halakorik komenigarri egi-

ten dutenean; eskualdeko gizarte zerbitzuek baimena eman beharko dute horretarako.

4. artikulua. Helburua.

Harrerari buruzko ondoko berezitasunak hartuko dira aintzat:

1. Harrera hitzarmena da pertsona bat edo bikote ezkondu edo era egonkorrean elkartutako bat edo guraso bakarreko familia bat, adin nahiz ezgaitasun arrazoiak direla eta, pertsona bati edo bikote ezkondu edo era egonkorrean elkartutako bati lotzea; azken horiek gazteagoak izan beharko dute, lotura adin arrazoiengatik egiten bada, ahaidetasun harremanen antzeko baldintzetan eta behar duten laguntza emateko betebeharrarekin.

2. Harrera hitzarmenaren bitartez hartzailleak edo hartzailleek pertsona bat bakarra hartu ahal izanen dute, salbu eta hartutako pertsonak bikote ezkondu edo era egonkorrean elkartutako bat badira edo bigarren maila bitarteko ahaidetasun gradua –odolkidetasunez nahiz adopzioz– badute. Halakoetan, harrerak bi pertsonak hartuko ditu.

3. Harrera hitzarmenak ez dakar berekin ondusunen legezko administrazioa ez eta hartzailleak hartutako pertsonen legezko ordezkariak izatea ere.

5. artikulua. Hartzailen eta hartutakoen bete-kizunak eta hautaketa.

1. Harrerak eskatzen du hartzailleek eta hartutako pertsonak ez edukitzea haien artean bigarren gradu bitarteko ahaidetasunik, adindunak izatea eta jarduteko gaitasun osoa izatea, edo hartutako pertsonari dagokienez gaitasun hori haien legezko ordezkarien, haiek zaintzen dituen pertsonaren edo testamentuz besteko tutoretza izendatzeko agirian hautaturiko pertsonen baimenaz ordezteko edo osatzea. Borondate ordeztu edo osatuaren kasuan, epailearen baimena beharko da, eta hartutako pertsonari edo bikoteari entzun beharko zaie, ezaguera nahikoa badute.

2. Hartutako pertsonak ezin dira hirurogei urte-
tik beherakoak izan, eta urte gutxien dituenak gutxienez ere hamabost urte gehiago izanen ditu urte gehien dituen pertsona hartzailleak baino.

3. Adinaren aldearen baldintza ez da beharrez-
koa izanen hartutako pertsonetako batek ezgaita-
sun fisiko edo psikikorik badu edo laguntza bere-
zirik behar badu.

4. Pertsona hartzailleak edo pertsona hartzaille-
ek betiere hartutako pertsonaren edo pertsonen
onura bilatuz jardunen dute, harrera-hitzarmenean
ezarritako epean. Oro har, epe hori ez da sekula
izanen hiru urte baino gutxiagokoa.

5. Familia hartzaileak Nafarroan eduki behar du bere ohiko etxebizitza, eta behar den gaitasuna eta aurretiko jarrera izanen du pertsona helduekiko traturako, eta egonkortasun familiarra, auzoekiko harreman onak eta behar den osasuna eta denbora pertsona helduarekin egon ahal izateko.

6. Familiako harrera egiten den etxebizitza iristeko erraza den hiri edo herri ingurune batean egongo da, eta behar diren baldintza higieniko eta osasunezkoak, ur korrontea, argi elektrikoa eta komuna izanen ditu; ez du izanen pertsona helduaren ibilera zailduko duten arkitektura oztoporik ez eta trabarik ere.

6. artikulua. Eraketaren baldintza formalak.

1. Harrera eskritura publiko bidez eratu behar da; eskritura hori behar den erregistroan inskribatu beharko da.

2. Eskritura publikoan alde bakoitzaren kontraprestazioak, eskubideak eta betebeharrak jaso beharko dira, eta baita ere, kasua bada, hartutako pertsonen hartzaileei eta haien intereseko hirugarrenei eginiko dohaintzak ere, une horretakoak nahiz hil eta gerokoak. Horrek ez du berekin ekarzen hartutako pertsonaren edo pertsonen ondasunak administratzea.

3. Elikagaiak emateko kontratuan, kontraprestazioa izan daiteke kapitala ondasun higikorren, ondasun higiezinaren edo diruaren bitartez lagatzea. Lagapen hori atzera bota daiteke hartutako pertsonen eskatuta, baldin eta pertsona hartzaileek eskritura publikoan finkaturiko betebeharrak betetzen ez badituzte edo esker txarra erakusten badute. Dohaintzarik izan eta ondasun higiezinena bada, dohaintzak eta hartan ezartzen diren baldintzek ez diete hirugarrenei kalterik egin behar, baldin eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzen ez badira.

II. kapitulua

Hartutakoaren eta hartzailearen arteko harremana amaitzea

7. artikulua. Harremana amaitzeko arrazoiak.

1. Harrera ondoko arrazoiengatik amaituko da:

a) Harremana ezartzeko eskrituran hitzartu denari jarraikiz.

b) Hartzaileak eta hartutakoak ados jarrita; adostasun hori eskritura publiko batean adieraziko da.

c) Bi aldeek nahi dutelako; borondate hori eskritura publiko batean adieraziko da. Harremanaren amaiera fede emateko moduan jakinaraziko

zaio beste aldeari, hiru hilabete lehenagotik.

d) Alde batek nahi duelako, beste aldeak dagozkion betebeharrak ez baditu betetzen edo bizikidetasuna zailtzen duen arrazoiaren bat egotzen ahal bazaio. Halakoetan, harremanaren amaierari buruzko jakinarazpenean arrazoiak azaldu beharko dira eta berehalako eragina izanen du.

e) Hartutakoa edo hartutako bikoteko bi kideak hiltzean edo haren/haien heriotza deklaratzeko.

f) Hartzailea edo hartzaile biak, baldin eta bikote hartzailea bada, hiltzean edo haren/haien heriotza deklaratzeko. Haietako baten heriotzak orobat ekar dezake eskritura publiko bidez egindako harrera hitzarmenak ezarritako kontraprestazioa berrikustea eta harrera hitzarmena amaitzea, baldin eta bizirik dirauenak onartutako betebeharrak aurre egiterik ez duela justifikatzen badu. Hala bada, hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dio pertsona hartuari.

2. Lehen idatz-zatiko a), b), c) eta d) letretan adierazitakoa gertatuz gero, baliogabetuta geratuko dira hartutako edozein pertsona pertsona hartzaileari edo pertsona hartzaileei, edo alderantziz, emandako botereak.

3. Pertsona hartua ezkontzen bada edo harreman egonkorra ezartzen bada, harrera hitzarmena aldatu ahalko da, pertsona hartzaileak zein pertsona hartuak hala eskatuta.

8. artikulua. Harrera amaitzearen ondorioak kontratugileen bizitzan

1. Baldin eta amaiera 7. artikuluko 1.a) eta b) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, aldean borondatea beteko da.

2. Aldeak ados jartzen ez badira, eta amaiera 7. artikuluko 1.c) letran adierazitako arrazoiarengatik gertatzen bada, etxebizitzaren titular ez diren pertsona hartzaileek edo hartuek hura utzi beharko dute, jakinarazpena jasotzen dutenetik hiru hilabeteko epean.

3. Aldeak ados jartzen ez badira, eta amaiera 7. artikuluko 1.d) letran adierazitako arrazoiarengatik gertatzen bada, etxebizitzaren titular ez diren pertsona hartzaileek hura utzi beharko dute, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik hamabost eguneko epean; etxebizitzaren titular ez diren pertsona hartuek hura utzi beharko dute, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik bi hilabeteko epean.

4. Amaiera 7. artikuluko 1.c) eta d) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, eta

harrera egiteko baldintzak eta denbora direla medio aberaste bidegabea gertatu bada, bere burua kaltetuzat jotzen duen aldeak kalte-ordaina eskatu ahalko dio beste aldeari. Pertsona hartuak pertsona hartzaileari egindako dohaintzak balio-gabe uzten ahal dira baldin eta pertsona hartuak jarri zion baldintzaren bat bete ez badu pertsona hartzaileak.

5. Harreraren amaiera lege honen bidez sortutako erregistroari jakinarazi beharko zaio.

6. Amaiera 7. artikuluko 1.c) eta d) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, pertsona hartuari elikagaiak eman dizkioten pertsonen zein entitate publiko eta pribatuak, pertsona hartuaren ordean egin ahalko dute pertsona hartzaileen aurka, emandako elikagaien zenbatekoa eskatzeko.

9. artikulua. Harrera amaitzearen ondorioak etxebizitzan

1. Pertsona hartua hiltzen denean –eta bi badira azkena hiltzen denean–, eta etxebizitzaren jabe hura bazen, pertsona hartzaileak edo pertsona hartzaileek etxebizitzan urtebetez bizitzeko eta bertako gauzak erabiltzeko eskubidea izanen dute.

2. Pertsona hartuak edo pertsona hartzaileak etxebizitzaren errentamenduaren titularrak baziren, hiri-errentamenduei buruzko legeriak xedatutakoa beteko da.

3. Pertsona hartuek etxebizitzan urtebetez bizitzeko eta bertako gauzak erabiltzeko eskubidea izanen dute harreraren amaiera pertsona hartzaileak hiltzeagatik gertatzen bada, etxebizitzaren jabe pertsona hartzaileak izanez gero.

10. artikulua. Testamentu gabeko oinordetzaren ondorioak

1. Pertsona hartuen testamentu gabeko oinordetza gertatuz gero, eta bizikidetasuna gutxienez ere lau urtekoa izan bada, pertsona hartzaileak –eta bi baldin badira, biek–, ondorengoekin, ezkontidearekin, aurreko ahaideekin eta bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo adopzioko alboko ahaideekin batera, eskubidea izanen du akzio pertsonala erabili eta pertsona hartuen oinordetza eskatzeko oinordetzako ondasunak, edo haien balioak dirutan, oinordetzaren laurdena ordezkatzeko oinordetza zer erabakitzeko dute.

2. Pertsona hartuak hil ziren egunetik jaso dituzten oinordetzaren errenten eta fruituen zati proportzionala ere eskatu ahalko dute, edo haren balioa dirutan.

3. Beti egotziko zaio aipatu laurden horri doako edozein tituluren bidez pertsona hartzaileek pertsona hartuengandik jasotako ondasunen balioa, edo, uko egin arren, oinordetzan eman dietenena.

4. Pertsona hartua hil eta urtebeteko epean preskribituko du 1. eta 2. idatz-zatietan ezartzen den erreklamazioak egiteko ekintzak.

5. Ez baldin badago ondorengorik, ezkontide-rik, aurreko ahaiderik eta bigarren mailarainoko alboko ahaiderik, edo haien seme-alabak aurrez hil badira, pertsona hartzaileei dagokie oinordetza osoa, bizikidetasuna gutxienez ere lau urtekoa izan bada.

11. artikulua. Testamentu bidezko oinordetza

1. Pertsona hartuen testamentu bidezko oinordetza gertatuz gero, eta bizikidetasuna gutxienez ere lau urtekoa izan bada, pertsona hartzaileek 7.1 artikuluan ezarritako eskubide bera izanen dute, eta aplikatzekoak izanen dira xedapen horretako 3. eta 4. idatz-zatietan egotzi eta preskribitzeari buruz emandako arauak.

2. Pertsona hartzaileek hartuei emandako laguntza eta diru prestazioen eta bizien arteko konpentsazioen edo heriotza dela-eta jasotako artean desproporzioa gertatu den kasuetan, pertsona hartzaileek kalte-ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea izanen dute, hartuen oinordeen kargura; adostasunik ez badago, arbitraje bidez edo epailearen erabakiz zehaztu beharko da horren zenbatekoa, honakoetan oinarriturik: aldean arteko hitzarmenak, hartzaileen bitarteko ekonomikoak, bizikidetasunaren iraupena, kontra-prestazio gisa adostutako disposizioaren munta eta utzitako ondasuntza.

Erreklamazio hori egiteko ekintzak pertsona hartua hil eta urtebeteko epean preskribitzen du.

13. artikulua. Onuradunen hautaketa, uko egi-tea eta finantziarioa.

1. Onuradunen hautaketa. Administrazioak ebatziko ditu interesatuen eskaerak, eta horretarako pertsona zaharren beharrak eta familia hartzailearen ezaugarriak bateratu beharko ditu, zenbait alderdi aintzat hartuta, hala nola, pertsona zaharrak eta familiak bata bestearik onarpena ematea, gizarte zerbitzuen aldeko txostena, familiararen eta hartzea eskatzen duen pertsonaren txosten medikoak, eskatzailearen eta familiararen arteko hurbiltasun ideologikoa, erlijiosoa eta hizkuntza aldetikoa, eta pertsona zaharra haren ohiko inguruetatik mugitzea desegokia izatea.

2. Uko egitea. Eskaerei uko egiteko arrazoiak hauexek dira: eskatzailearen adimeneko gaixotza

suna, pertsona zaharrak bizi behar duen lojamenduaren desegokitasuna, familia hartzailearen osasuna, eskatzailearen eta familia hartzailearen arteko bateraezintasun erlijioso eta ideologikoa.

3. Finantziazioa. Gizarte Ongizatearen Departamentuak laguntza zehatzak finkatuko ditu hartutako pertsonentzat, beste lojamendu mota batzuetarako ere ezarritakoen ildotik.

Xedapen gehigarria. Bakarra. Pertsona zaharrak hartzeko erregistroa sortzea.

Pertsona zaharrak hartzeko erregistroa sortzen da, Gizarte Ongizatearen Departamentuaren

menean. Horren eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira. Erregistro horrek kexetarako atal bat izanen du, kontratu instituzio honen jarraipena egin dezan.

Etxean pertsonak hartu nahi dituzten familiak eta hartuak izan nahi duten pertsonak bildu behar dituzte.

Azken xedapena. Indarra hartzea

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru Dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuak aldatu zuen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2001eko otsailaren 22an egindako Osoko Bilkuran, ondoko foru lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen: "Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Foru Dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuak aldatu zuen". Proposamen hori 2000ko irailaren 13ko 70 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Aipatu Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2001eko martxoaren 23an eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalgo dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minosbaliotasuna duten pertsonak kontratatzeari buruzko arauak bete ditzan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minosbaliotasuna duten pertsonak kontratatzeari buruzko arauak bete ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea-CDN Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak 192. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaida dadin:

Nafarroan 31.003 minusbaliatu daude guztira; Nafarroako biztanleriaren % 6, alegia. Horietatik, % 44 Iruñerrian bizi dira.

Minusbaliotasun-motaren ikuspegitik, ehunetik handiena agertzen dutenak hezur eta giltzaduretako arazoei eta eritasun kronikoari dagozkionak dira, guztizkoaren % 53 agertzen baitute.

Legearen arabera minusbaliotasun-mailari dagokionez, % 33 eta 65 artean daude % 60, eta % 22k % 75eko baino gehiagoko minusbaliotasuna daukate.

Guztizkoaren % 42 66 urte baino gehiagokoak dira, eta % 16k beste pertsona baten laguntza behar dute.

Bestalde, lanbidearen ikuspegitik, jende-multzotz honetan langabezia-tasa Nafarroako batez bestekoa baino hiru aldiz handiagoa da.

Jabeturik gaude erakundeek pertsona eta multzo kaltetuenei laguntzeko egiten duten ahaleginaz, baina, era berean, kontuan hartzekoa da oso gabezia larriak dauzkagula guregandik oso hurbil, eta ezinbestekotzat jotzen dugu, behar adina diru erabiltzea ez ezik, diru horiek programa eta proiektu garrantzitsu eta ongi kudeatuei esleitzen zaizkiela ziurtatzea ere.

Ildo horretatik, asko kezkatu gaitu "Ezgaituak, 1995-1999" aurrekontu programari buruz Kontuen Ganbarak eginiko txostenak, horren ondorioek agerian utzi baitute gai garrantzitsuetan kontrolari edo gainbegiratzeari dagozkion akatsak daudela.

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordearekin eginiko lan-bileran, ANFAS elkar-teak esan zuen derrigorrezkoa dela neurtzeko moduko helburuak ezartzea ezgaituei buruzko programaren kudeaketan, baita haiekin lotura duten adierazle zenbatetsiak ere. Halaber, haien egokitzapen eta betetze mailari buruzko jarraipen sistematikoa egin dadila eskatu zuten. Gai honetan elkarlanean aritzeko eskaintza ere egin zuten, helburu muntadunak erdiesteko eta programaren garapena baloratzeko irizpide publiko eta eraginkorrak izateko asmoz.

ANFASek eskatu zuen ezgaituei laguntzeko zentro eta zerbitzuen ikuskapen-lanak sendotzea eta lan horietarako eskumenak ugaritzea, halako moldez non egiaztatuko baita, indarreko araudia betetzen ote den ez ezik, ea aldezturik zehazturiko kalitate-mailak eskainiz ematen ote den zerbitzua ere, eta txostenean aipatzen diren ahuleziak konponduko baitira.

Kontuen Ganbararen txostenean hainbat akatsen zantzuak nabaritzen dira:

1.- Banan-banakako jarraipenik zenbait zentrotan ez dago, ez eta ebaluazio-helburu eta –sistemak dituen talderik ere.

2.- Erabiltzaileen intimitateari eta pribatutasunari dagozkien hainbat akats.

3.- Teknikaririk eza, hala nola psikologoak, pedagogoak, lan-terapiako terapeutak eta fisioterapeutak.

4.- Langileen prestakuntza eta birtziklajerako programak.

5.- Etxebizitza babestuen defizita.

6.- Ebakuazio-planen prestaketa.

Antzemandako akatsak konpontzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeak botere publikoen helburuetako bat izan behar du. Hitzarturiko eta diruz lagundutako zentroyen berrikuspeneko eta kontu-ikuskaritzako politikari jarraipena eman behar zaio, ikuskaritzataleak gaur egun dauzkan baliabideak behar adinakoak ote diren aztertuz.

Zentro berekiak

Aztergai dugun txostenean, modulu, tarifa eta kuotei dagokienez, hitzarmeneko moduluen batez bestekoa 4.684.460 pezetakoa dela agertzen da; Administrazioaren zentro berekietan, ordea, zenbaterikoa 6.114.620 pezetakoa da. Horrek esan nahi du 1.430.160 pezetako aldea dagoela lagunduriko pertsona eta urte bakoitzeko; hau da, % 30,5 gehiago; eta kopuru hori San José zentroko 80 postuekin biderkatuz, urteko 114.412.800 pezetako kopurua lortzen da.

Jakin beharrekoa da ea diru-kopuruaren alde hori laguntza-kalitatean nabaritzen den alde baten ondorio den ala laguntza-eredu hoberendua definitzera eramaten gintuzketen beste arrazoi batzuk (zentro guztietan ematen den zerbitzuaren kalitatea, gaur egungo kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia) direla-eta sortzen ote den.

Eguneko zentro hitzartu bateko postu batek Nafarroako Gobernuari modulu bakoitzeko ekartzen dion gastua 2,4 milioikoa da; hitzarturiko zentroa egoitza-izaerakoa baldin bada, horren kostua 4,7 milioikoa da psikikoentzat, eta 4,9 milioikoa, fisikoentzat.

Zentro psikiko bereki eta Gobernuak kudeaturiko baten gastua 6,1 milioikoa da, hau da, baliokide hitzartuarena baino ehuneko 31 handiagoa.

Laneratzeko neurriak

Kontuen Ganbararen txostenak aztertutako puntuetako bat laneratzea lortzeko legegintza-neurrien egiazko eragina izan da. Neurri horietako batzuk dira Administrazioak deituriko postuen % 3 gordetzea, eta plantillan ezgaituak dauzkaten enpresei kontratu publikoetan lehentasuna ematea.

Txostenak agerian uzten duen bezala, begibistakoa da administrazioek ez dituztela, kontratazio-arloan, euren jarduketak legeek ezarritakora egokitzen.

Kontuen Ganbarak informazioa eskatu zien Gobernu departamentuei eta Nafarroako udal nagusiei, euren iritzia eman zezaten ehuneko 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten langileek lanpostu hutsen % 3 bete ahal izan dezaten postu-kopuru horren erreserbaren aplikazio praktikoiari buruz. Era berean, administrazio-klausula partikularren orriek plantillan langile minusbaliatuen kopuru jakin bat daukaten enpresei kontratuak esleitzeko lehentasuna emateari buruz informazioa eskatu zen.

Emitza honako hau da:

Zentroa	Deitutako lanpostuak	Betetako lanpostuak	Minusbaliatuak
Administrazioa, erroa	642	609	7
Osasunbidea	411	406	6
Hezkuntza	68	68	–
Guztira	1.121	1.083	13

Beraz, deialdiko guztizko lanpostu-kopurutik, ehuneko 1,16 baizik ez da bete minusbaliatuekin. Ehuneko hori ehuneko 1,2ra igotzen da erreferentziatzat hartzen bada betetako postu-kopurua.

Egoera horrez gain, aipa liteke Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoetan neurri horrek izan duen emaitza. Enpresa publiko horietan, 500 langiletatik, 5 pertsona minusbaliatu daude guztira, kontuan izan gabe ITG Ganadero, Agrícola, NASERSA, Viveros y Repoblaciones eta beste enpresa batzuk.

Ezgaituen gizarteratzea lortzeko oinarritzko bideetako bat haien laneratzea da. Gainera, minusbaliotasun edo ezgaitasunen bat daukaten pertsonak gizaratean aktiboki parte hartu ahal izateko bide naturala da.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau egin nahi dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du honako hauek bete ditzan: Langileen Estatutuaren testu bateratuaren

7. xedapen gehigarria, Kontratuari buruzko Foru Legeko 62. artikulua eta 9. nahiz 14. xedapen gehigarriak, minusbaliotasuna duten pertsonak Administrazio Publikoaren esparruan kontratatze-ari dagokionez, eta Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoetan minusbaliotasuna daukaten langileak kontratatzeko legezko betekizunak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Ongizateko

Departamentuko Idazkaritza Teknikoari atxikitako ikuskaritzako giza nahiz gauza baliabideak hobe ditzan, xedea izanik bai Administrazioak berak bai harekin hitzarturiko enpresek emandako zerbitzuen kalitatea hobetzea. Ikuskaritza horrek, besteak beste, minusbaliatuen alde enpresa pribatuetan % 2ko erreserba bete dadin edo lehengaietz hornitzeko kontratuak sina daitezzen zainduko du.

Iruñean, 2001eko otsailaren 16an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeari buruzko lege indardunak bete ditzan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonak laneratzeari buruzko lege indardunak bete ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkurak eztabaida eta bozka dezan:

1995-1999 eperako "Ezgaituak" aurrekontu programari buruz Kontuen Ganbarak eginiko txostenak adierazten du errealitatean oso ahula izan dela ezgaituak laneratzeko legegintza-neurrien eragina. Agerian uzten du ez direla bete lanpos-

tuak gordetzeko edo kontratuak esleitzean lehen-tasuna emateko neurriak.

Nafarroako Gobernua ez da iritsi enplegu publikoko postuen % 3ra; izan ere, % 1,2 baizik ez du lortu. 1995-1999 epean betetako 1.083 postuetatik, 13 besterik ez ziren izan minusbaliatuek betetakoak. Era berean, administrazio-baldintzen orrietan ez da esaten kontratuak esleitzean lehen-tasuna emanen zaienik plantillan langile minusbaliatuen kopuru jakin bat daukaten enpresei.

1997ko ekainaren 4an Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen Erabakia ere ez da betetzen: haren bidez, ezgaituen lan-aukerak berdintzea erabaki zen. Erabaki hartan proposatzen ziren enpresei ezgaituak kontratatzeko laguntza ekonomikoak emateko neurriak, Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzu-lanpostuak zuzenean gordetzea, trebetasun eta abilezia zehatzetarako probak egitea, 25 langile baino gehiago izanik zerbitzu publikoak emateko kontraturiko enpresek ere euren langileen % 3 minusbaliatuek osatua izateko betebeharra araudian aipatzea eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren barnean berriazko enplegu zerbitzua egotea.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

1. Ezgaituak Nafarroako Administrazio Publikoan laneratzeari buruzko legedi indarduna betetzea.

2. Nafarroako Parlamentuak 1997ko ekainaren 4an onetsi zuen Erabakia betetzea, zeina Nafarroan ezgaitasuna daukaten pertsonen lanaukerari buruzkoa baita.

3. Ezgaitasunen bat daukaten pertsonak laneratzeko neurrien aldiak aldiko ebaluazioak egiteari eta eginiko ebaluazioaren emaitzaren arabera neurri horiek egokitu eta aldatzeko buruz Kontuen Ganbarak eginiko gomendioak betetzea.

4.- Ezgaitasunak daukaten pertsonak ordezkatzen dituen elkarte-multzoarekin lankidetzan aritzeko moduak ezartzea, bide ezberdinetatik enplegua sustatzeko neurriak abiarazteko eta kolektibo horren laneratzeari laguntzen dioten pizgarriak aztertzeke.

Iruñean, 2001eko martxoaren 16an.

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe publikoen hezkuntza-eskaintza hobetzeko plan bat egin dezan, eta José Vila ikastetxe publikoa itxi izana kritikatzeko da

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxe publikoen hezkuntza-eskaintza hobetzeko plan bat egin dezan, eta José Vila ikastetxe publikoa itxi izana kritikatzeko da".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluen eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaida dadila proposatzen du. Mozio horren bidez, atsekabea agertzen da "José Vilá Marqués" ikastetxe publikoa ixteko asmoarengatik, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko ikastetxe publikoetako hezkuntza-eskaintza handitu eta hobetzeko politika aktiboekin

buruzko Plan bat egin dezan, ikastetxe horietan matrikulazioak gora egitea sustatzeko.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak betidanik pentsatu du botere publikoen betebeharrak dela apustu argi eta garbia egitea lehentasuna ikastetxe publikoetara emanen dien hezkuntza-politika baten alde; izan ere, alde batetik, kalitatezko eskola publikoa era guztietako ikasleentzat egiazko aukera-berdintasuna sustatzeko bermerik onena dela deritzogu, eta, bestetik, hezkuntza-sistemak gizarte-berdintasuneko tresna izateari uzten diolako osterantzean, eta, bereziki behartsuenak, porrot egitera bideratzen dituelako.

Lehentasan politiko horrek ez du zertan ikastetxe publikoen sarearen alde gainontzekoak baztertuko dituen defentsa akritiko batean gauzatu; alabaina, ziurtatu behar du guztientzako eskola publikoaren eredia Nafarroako hezkuntza-sistemaren ardatz nagusi izatea. Horretarako, gehienek erabiltzen dutena izaten segitu behar du, eta, batez ere, kalitate-mailarik handiena bilatu behar du, eta itzuri egin behar zaio sare publiko ordezko, bigarren mailako, beharrezkoak daukaten ikasleentzat hartzaile eta, beraz –bere irakaskuntza, irakasleak eta bitarteko materialak kalitate handikoak izan arren–, hitzarturiko sarea bezain erakargarri ez izateko tentaldiari.

Hori horrela, begi-bistakoa da egoera hori ez dela Iruñeko leku askotan dagoena; izan ere, ikastetxe publikoetako gaztelaniazko hezkuntza-eskaintza desagertzeko zorian dago; zalantzarik gabe, ikastetxe horiek kokaturik dauden lekuko

beherakada demografikoarekin zerikusia duten arrazoiengatik, baina, horrez gain, hezkuntza arloko administrazioak ikastetxe horiek sustatu, handitu eta euren hezkuntza-eskaintza hobetzeko politika aktiborik ez duelako garatu; ez du ikastetxe publikoak erakargarriago izatea lortzeko eta, horrela, haietako matrikula gehitzen laguntzeko horrelako politikarik egin.

Hezkuntza-eskaintzak Iruñean gaur egun agertzen duen egoeran, irakaskuntza publikoaren aldeko hezkuntza-politikako apustu horrek politika aktiboetan gauzatu behar du, hiriko ikastetxe publikoak gero eta erakargarriagoak, kalitate hobekoak eta gizartearen nahiz herritarren eskerei egokituagoak izateko.

Bestalde Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak hezkuntzaren plangintza eta Nafarroako eskola-mapan beharrezkoak diren aldaketak egiteko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak daukan eskumena errespetatu nahi du, eta, aldi berean, José Vilá ikastetxe publikoko egoera jasanezina Iruñeko beste ikastetxe batzuetan errepika ez dadin hainbat neurri garaiz har ditzala galdatzen dio.

Azken batean, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ezin onar dezake José Vilá ikastetxearen itxiera Iruñeko leku askotan gaztelaniazko hezkuntza-eskaintza publikoaren desagerpenaren hasiera izatea; horregatik, goian aipaturiko arrazoiak direla-eta, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak honako erabaki proposamena onar dezala proposatzen du, gaur egungo egoera arintzea bilatzen duen neurri-multzo bateko lehen neurri gisa:

Erabaki proposamena

- Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bere atsekabe eta kritika adierazi nahi ditu “José Vilá Marqués” ikastetxe publikoa ixteko asmoarengatik, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du Iruñeko ikastetxe publikoetako hezkuntza-eskaintza handitu eta hobetzeko politika aktiboetara buruzko plan bat egin dezan, ikastetxe horietan matrikulazioak gora egitea sustatzeko eta “José Vilá” ikastetxe publikoa ixtera eraman duen egoera Iruñeko hainbat lekutako beste ikastetxe publiko batzuetan errepikatzea galarazteko.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak zenbait oinarrizko alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak zenbait oinarrizko alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau Osoko Bilkuran eztabaida dadila proposatzen du. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak funtsezko bere alderdi batzuk –toki entitateen edo Administrazio Kontratazioarako Batzordearen kontratazioa arautzea kasu– garatzeko ezarritako epeak bete ditzan eta aipaturiko legeko lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Zioen azalpena

1999ko Kontu Orokorrei buruz Kontuen Ganbarak eginiko txostenak hauxe esaten du, hitzez hitz: “Kontratuei buruzko Foru Legeak 1998ko abuztuaren 1ean indarra hartu ondoren, lege horretako oinarriko puntu batzuk garatzeko legeak berak ezarritako zenbait epe ez dira bete; adibidez, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea Kontratuei buruzko Foru Lege berriari egokituz toki entitateetako kontratazioaren araupetzea egiteari dagokionez, edo Administrazio Kontratazio

Batzordearen osararen, antolaketaren eta eginkizunen araupetzea egiteari dagokionez”.

Halaber, txostenak esaten du: “Bestalde, legeko lehen xedapen gehigarrian hainbat esparrutarako (bermeak eratzeko, kontratistak sailkatzea, baldintza-orriak onestea, lizitazio-iragarkiak eta abar) aurreikusitako zenbait erregelamendu ez dira oraindik onetsi”.

Nafarroako Gobernuak kontratazioarako oinarrikoak diren zenbait alderdiri buruz egiteko dagoen araudia garatzeko gomendioa bete dezan eskatzeko asmoz, honako erabaki proposamen hau egin dugu:

Erabaki proposamena

Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kontratuei buruzko Foru Legeak funtsezko bere alderdi batzuk –toki entitateen edo Administrazio Kontratazioarako Batzordearen kontratazioa arautzea kasu– garatzeko ezarritako epeak bete ditzan eta aipaturiko legeko lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau Osoko Bilkuran eztabaida dadila proposatzen du. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan, xedea izanik Nafarroako kontu orokorren barnean sartzea zuzenbide publikoari loturiko ente publikoenak, Nafarroako kontu orokorrek foru sektore publiko guztiari buruzko ikuspegi orokorra eskain dezaten.

Zioen azalpena

Azken urteotan, Nafarroako kontu orokorrei buruz Nafarroako Kontuen Ganbarak urtero egiten duen txostenean gomendio bat egiten da, zeina behin eta berriro bete gabe utzi baita, zuzenbide

publikoari loturiko ente publikoak Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari azaldu behar izaten dizkion kontuen barnean sartzearen aldekoa.

Nafarroako Gobernuak gomendio hori bete dezala eskatzeko asmoz, honako erabaki proposamen hau proposatzen dugu:

Erabaki proposamena

- Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ogasunari

buruzko Foru Legea alda dezan, xedea izanik Nafarroako kontu orokorrek jaso ditzatela haietan euren informazioa sartu behar duten ente-mota guztien kontuak, eta euren finantza-erregimenari dagozkion alderdi guztiak arautu ditzan, kontuek foru sektore publiko guztiari buruzko ikuspegi orokorra ager dezaten.

Iruñean, 2001eko otsailaren 22an.

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uko egin diezaion José Vilá ikastetxe publikoa ixteari

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da uko egin diezaion José Vilá ikastetxe publikoa ixteari".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea-CDN Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Hezkuntza Batzordean berehala eztabaida dadin, aurrematrikulazio-epeak kontuan izanik:

Hezkuntza kontseilariaren agerraldiak eta José Vilá ikastetxe publikoko gurasoen elkartearekin egindako lan-bilerek zenbait gauza eztabaidagarri utzi zituzten agerian, ikastetxe publikoa ixteari dagokionez. Bestalde, bilera horiek Nafarroan ira-

kaskuntza publikoak bizi duen egoera eta eskola publikoaren mesedetan har litezkeen neurriak azaletik aztertzeke balio izan zuten.

Gurasoen ordezkariak azaldu zuten 95-96 ikasturtean L.O.G.S.E. deritzon legea abiarazi zela eta José Vilá ikastetxea haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe bihurtu zela. Orduan, matrikulaturiko ikasleen kopuruak behera egin zuen, 178 ikasletik 83ra, familia askok euren seme-alabak lehen hezkuntzaz gain bigarrena ere eskaintzen zuten beste ikastetxe batzuetara eramatea erabaki zutelako.

Ikastetxea ixteari dagokionez, bertako gurasoen elkarteak egiaztatu du azken hiru ikasturteetan ikastetxean ikasle-kopuru bera matrikulatu dela (3tik 12 urtera bitarteko 61 ume). Bestalde, 96-97 eta 97-98 ikasturteetan 64 eta 63 ume, hurrenez hurren, matrikulatu ziren; kopuru horiek aurrekoen antzekoak dira.

96-97 ikasturteaz geroztik, haur hezkuntzako lehen mailan matrikulaturiko haurren kopurua honako hau izan da:

96-97:	3
97-98:	4
98-99:	5
99-00:	1
00-01:	5

Gurasoen aburuz, ofizialki azaldurikoez gain badaude ikastetxea ixteko beste arrazoi batzuk ere. Horien artean, gurasoek honako hauek aipatu dituzte:

1.- José Vilá ikastetxe publikoko eskola kontseiluak 2000-10-19an egin zuen bileran, Irakasleei Laguntzeko Zentroari (I.L.Z.) "ikasgela huts batzuk erabiltzeko" baimena eman zion. Erabaki hori hartu zen ikastetxean gela huts batzuk zeudelako, eta, eskuzabaltasunez jokatzuz, aldi baterako laga ziren.

2.- Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiarentzat aurkikuntza bat izan ziren, une hartan, "José Vilá" ikastetxeko instalazioak, eta eraikin osoa bereganatzea erabaki zuen; izan ere, I.L.Z.ko jardueretan parte hartzen duten irakasleen erosotasunari garrantzi handiagoa eman zion 62 ikasleri eta, beraz, euren familiei sorturiko arazoei baino, nahiz eta ikasleek duten hezkuntzaren benetako protagonismoa.

3.- Ikastetxeko zuzendaritzak, 2000-10-19ko eskola kontseiluaren erabakia kontuan hartu gabe, ikasgela hutsak ez ezik ikastetxeko hezkuntza-komunitatea erabiltzen ari den espazioak ere utzi zizkion I.L.Z.ri.

4.- I.L.Z. ikastetxean instalatzen hasi ondoren –horrelako ekintza batek sortarazten duen gogaimena eta guzti–, Hezkuntza zuzendari nagusiak azaroaren 23an bilera egiteko deia egin zion eskola kontseiluari. Bilera horretan jakinarazi zigan ikastetxea ixteko erabakia harturik zegoela jadanik, eta behin betikoa eta negoziatzea zela.

Gure seme-alabak gaur egun erabiltzen ari diren ikasgelen etorkizunari buruz gurasook daukagun zalantzari zuzendari nagusiak eman zion erantzuna izan zen ikasgela horiek "I.L.Z.k erabiliko zituela".

5.- Egoera hau guztia agintekeriartzat hartu dute gurasoek, norgehiagoka bat izanen balitz bezala; izan ere, sentitzen dute "ken zaitez, neu jarriko naiz-eta" moduko bat dela hau, azken batean. Eta kontuan izan behar da erditik kendu nahi dituenak, enbarazu egiten dutelako, 3tik 12 urtera bitarteko 60 haur direla; espazioa eta eskura dituzten aukerak kendu nahi zaizkie. Gurasoen iritziz, matrikula urriaren argudioa Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak eta ikastetxeko zuzendaritzak berak Nafarroako iritzi publikoari begira justifikatzea dirudiena justifikatzeko erabili duten aitzakia da.

Halaber, esan behar da ikastetxea ixteko erabakia traizio bat dela José Vilá Marqués jaunaren oinordekoen asmoekiko; izan ere, haiek lur-saila laga eta milioi bat pezeta eman zuten 1965ean, ikastetxe bat sortzeko, eta ez beste dependentzia batzuetarako.

Aurtengo urtarrilaren bukaera aldera gurasoei zuzenduriko inkestak agertzen duenez, ia aho batez nahiago duten aukera "José Vilá" ikastetxe publikoa ez itxi eta hurrengo ikasturterako neurri osagarri batzuekin sendotzearena da.

Bestalde, ikastetxe hori ixteak auzitan jartzen du irakaskuntza-sistema publikoa bera, zeinak izan behar baitu Nafarroako hezkuntza-sistemaren osotasunaren muin eta bultzatzaile, bai eta Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-plangintza ere. Egoera hau dela medio, Iruñaren erdiguneko ikastetxe publikoak (J.M. Iribarren, José Vilá...) ixtea "ahalbidetzen" da, eta hiriaren kanpoalderanzko mugimendu bat eragiten da; hortaz, ez dio ezertan laguntzen hiriburuaren erdigunea biziberritzeari.

Horregatik, ikastetxea hautatzeko askatasunean eta irakaskuntza-askatasunean osoki sinetsiz, eta Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea defendatuz, beharrezko deritzogu eskola publikoa babesteko eta hobetzeko plan bat sortzeari, hezkuntza-aukera egokia eta gizarteak berak sortzen dituen ezberdintasunak gainditzeko modua den aldetik.

Aurreko guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau egiten da:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du José Vilá ikastetxe publikoa ixteari uko egin diezaion, hiriaren alde horretan eskainiko diren ordezkotako aukera urriak eta irakaskuntzaren eskaintza publikoak jasanen duen kaltea kontuan izanik. Ikastetxe horren eskaintza indartzeko neurri zehatzak bultzatu eta ezarri beharko ditu, hala nola:

– Ikastetxe elebiduna ezartzea: ingelesa-gaztelania; alemana-gaztelania edo frantsesa-gaztelania.

– Orik 3 urtera bitarteko zikloa irekitzea.

– Irakaskuntza integratuen ereduren bat ezartzea.

– Etorkinen gizarteratzeari laguntzeko neurriak ezartzea (zona horretako errealitate sozialari egokituriko neurria da, etorkin magrebiarrak eta ekua-dortarrak bertara bizitzera etortzen ari baitira).

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du eskola publikoa babesteko plan bat presta dezan, hezkuntza-eskaintzaren kalitatean oinarrituz eta Nafarroako beste ikastetxe publiko batzuetan abiarazi diren esperientzia berritzaileen ondorioz gurasoek egindako eskaerak kontuan hartuz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDE BEREZIAN PROPOSAMEN BEZALA IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen, eta Bizikidetasuna-

ren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Berezian proposamen bezala izapida dadin agintzen da. Mozio hori 2001eko otsailaren 6ko 9 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Iruñeko erietxeen eremuan aparkatzeko arazoei buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Iruñeko erietxeen eremuan aparkatzeko arazoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzónnek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Denok dakigunez, Iruñeko erietxeen eremuan aparkatzeko zailtasunak izaten dira. Garrantzizko arazoa dugu hori, kontuan hartzen badugu Iruñetik kanpoko jende asko bertaratzen dela. Jende kopuru hori handitzen joan da Kanpo Kontsulten Zentroa dagoenetik. Jende asko joaten da eremu

horretara, familiakoak bisitatzen, edo kontsulta medikoetara, eta kasu askotan pertsona zaharrak izaten dira, familiakoek lagunduta, eta ez dute tokirik izaten autoa uzteko. Gure taldearen iritziz, txandatze sistema bat ezartzeak, aparkatzeko gehieneko denbora ezarriz, egoera hobetuko luke, eremu horretan modu iraunkorrean aparkatzeko aukera baztertuko bailitzateke, garraio publikoaren erabileraren mesedetan. Finean, ORA bezalako sistema bat, ordaindu gabe.

Erietxeen eremuko orubeak eta aparkalekuak Nafarroako Gobernuarenak direla ulertuta, honako galdetzen dugu:

– Osasun Departamentua jabeturik dago erietxeen eremuan sartzeari, bereziki Iruñetik kanpokoak sartzeari, eragozten duen arazo horretaz ?

– Arazo horiek konpondu edo arintzeko neurrien bat hartzea aurreikusi al du?

– Zergatik ez da aztertzen gehieneko denbora mugatzen duen txandatze sistema bat ezartzea autoak aparkatzeko ?

Iruñean, 2001eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Etxebizitzak zaharberritzearen arloko arauak aldatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak etxebizitzak zaharberritzearen arloko arauak aldatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari

Félix M^a Taberna Monzónnek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen 1999ko azaroaren 11n, etxebizitzak zaharberritzeko araudia alda zezan Nafarroako Gobernuak premiatzen zuena.

– Aldatu al da araudia erabakiak zioen legez?

– Aldatu baldin bada, esan zein arau aldatu den.

– Aldatu ez baldin bada, zergatik izan da?

Iruñean, 2001eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Lodosan hondakin toxikoetarako biltontzi bat jartzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Lodosan hondakin toxikoetarako biltontzi bat jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzónnek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Lodosan, Alacandretik oso-oso gertu, hondakin toxikoen biltontzi bat jartzeak kezka handia sortu du ingurumen aldetik Errioxako Autonomia

Erkidegoan. Kezka hori bertako Parlamenturaino heldu da, eta Errioxako Gobernuak administrazio-arekiko auzi errekurtsioa jarri du Nafarroako Auzitegi Nagusian.

Hori dela-eta,

– Zertan dira proiektu horren epe eta tramiteak, zer tramite falta da egiteko?

– Zer dela-eta instalatu nahi da biltontzi hori? Zer dela-eta toki horretan?

– Zer bilera egin da Errioxako agintariekin gai horri buruz?

– Zer neurri hartu da gai horretan arriskuei aurrea hartzeko?

– Zer txostena igorri zuen Lodosako Udalak?

Iruñean, 2001eko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Toki azpiegituren hiru urteko planeko obren diru-kopurua handitzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki azpiegituren hiru urteko planeko obren diru-kopurua handitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean galdera hau du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Gobernu Kontseiluak 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Lege proiektua onetsi du, hiru urte horietarako 16.000 milioi pezetako zenbatekoarekin. Ondoren, Parlamentuko eztabaidan, Osoko Bilkurak 3.000 milioi gehitu zizkion azpiegituren hiru urteko plan hori eta, beraz, Foru Ogasuneko 19.000 milioi pezeta erabiliko dira 2001-2003 urtean.

Berriki, Nafarroako Gobernuak dirua eskatu duten 1777 proiektuak aztertu dituzte. Horietatik 457k izanen dute foru gobernuaren finantziazioa.

Gure asmoa ez da eztabaidan sartzea une honetan, eta ez dugu balorazio handirik egin nahi, halaber, eskaera guztiei erantzuteko adina-

koa inolaz ere ez den zenbatekoaz, edo banaketarako egungo sistemari beste formula batekin heltzeko dagoen beharraz; deigarria egiten zaigu, halere, proiektuei emanen zaizkien laguntzek 24.617 milioi pezeta egiten dutela, guztira, eta zenbateko hori handiagoa ere izan daitekeela, 30.000 milioi pezetarainokoa, alegia, diru ekarpena % 20 handitzen bada, horren inguruko arauak horretarako bide ematen baitute.

Horregatik guztiagatik hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak 2001-2003rako hiru urteko planerako 19.000 milioi pezetako zenbatekoa onetsi badu, zein da arrazoia Nafarroako Gobernuak, epe horretarako 24.617 milioi pezeta egiten duten lanak sartzeko hasiera batean ?

2. Nafarroako Gobernuak aurreikusirik al du konpentsazio sistemaren bat ezartzea 2001-2003rako hiru urteko planean erantzun gabe geldituko diren 1300 eskaerak kontuan hartzeko ?

3. Nafarroako Gobernua beste planifikazio sistema bat, egungo eskaerekin bat heldu dena eta zenbatekoa handiagoa egiten duena, lantzen ari al da, eskaeren bi heren erantzunik gabe geldi ez daitezen ?

4. Nafarroako Gobernua lantzen ari al da azpiegituretarako diru hori banatzeko gaurkoa ez beste moduren bat, Lizarra, Artaxoa, Azagra, Funes, Lesaka eta beste herri batzuetako egoera, alegia, herritarren bizi kalitatea hobetzeko oinarritzko lanak egiteko dirurik ez jasotzea, zuzentzeko ?

Iruñean, 2001eko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruzko galdera

AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA ATZERA BIDALTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruz egindako galdera atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki du. Galdegileak ahoz erantzutea eskatu zuen.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G Sails:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganbarako 2001erako plantilla organikoa eta 2000ko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 26an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontuen Ganbarako Lehendakariak, 2001eko otsailaren 15ean hartutako erabaki baten bitartez, Erakunde honetako 2001erako plantilla organikoa eta 2000ko abenduaren 31n haren zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

onetsi zuen. Erabaki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Erabaki horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ERANSKINA 2001erako Kontuen Ganbarako Plantilla Organikoa

Lanpostua	Zenbat	Euskaraz jakitea	Araubide juridikoa	Maila	Izendapen librea	Esklusi-bitatea	Lanpostua	Maila osagarria	Osagarri berari.
Lehendakaritzako aholkularia	1		K	–	X		–		
Lehendakaritzako idazkaria	1		K	–	X		–		
Idazkari nagusia	1		F	A	X	X	75		
Auditorea	4		F	A		X	70		
Legelaria	1		F	A		X	45		
Informatikako goi mailako teknikaria	1		F	A		X	20		
Auditoretzako teknikari-kontuhartzailea	1		F	B	X	X	30		15
Auditoretzako teknikaria	11		F	B		X	30		
Auditoretzako teknikaria	1	X	F	B		X	30		
Administratzailea	1		F	C	X	X	33	12	
Administraria	4		F	C			23	12	
Administraria	1	X	F	C			23	12	
Mandataria	2		F	D			15	15	

F: Funtzionarioa

K: Kabineteko behin-behinekoa, izendapen librekoa

2. ERANSKINA

2000-12-31n Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoqui Urdaci, Luis M ^a	A	4	Idazkari Nagusia	Jardunean
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	4	Auditorea	Jardunean
Fuertes Pérez, José	A	6	Auditorea	Zerbitzu bereziak
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	4	Auditorea	Jardunean
Sesma Masa, Francisco Javier	A	4	Auditorea	Jardunean
Esparza Oroz, Miguel M ^a	A	4	Legelaria	Jardunean
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	5	Informatikako Sis. goi mailako tek.	Jardunean
Ezquerro Royo, José Luis	B	3	Auditoretzako tek.a-kontuhartz.	Jardunean
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Balduz Gil, Elvira	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Drona Lampérez, M ^a Guadalupe	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Etayo Salazar, Francisco José	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Irigoyen Olaiz, Lourdes	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Martínez Cía, M ^a Isabel	C	7	Administratzailea	Jardunean
Elizalde Elizalde, Julia	C	4	Administraria	Jardunean
Equiza Maquirriain, M ^a José	C	5	Administraria	Jardunean
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	4	Administraria	Jardunean
Rodríguez Rodríguez, M ^a Mercedes	C	5	Administraria	Jardunean
Zudaire Echávarri, A. Aurora	C	4	Administraria	Zerbitzu bereziak
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	4	Mandataria	Zerbitzu bereziak
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	3	Mandataria	Jardunean

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile-teknikariak administrazio izaeraz eta aldi baterako kontratatzeko zerrenda osatzeko oposizio-lehiaketarako

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi honetan eskabideak aurkezteko ezarzen den epea 2001eko martxoaren 10ean, larunbata, bukatzen denez, eta egun horretan Parlamentuko bulegoak itxita daudenez, jakinarazten da eskabideak aurkezteko epea 2001eko martxoaren 12an, astelehena, 19:00etan, bukatuko dela.

Iragarki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--